

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Hasieran, enpresa txikia izango denez ez ditugu elementu asko edukiko. Baina enpresa handitzen doan heinean, lanerako makina eta elementu gehiago beharko ditugu, azkarrago eta hobeto lan egiteko, izan ere horrek enpresa gero eta egonkorrago bihurtzea ekarriko du, eta, egonkorrago egotearen aurka, publizitate gehiago edukiko dugu orren ondorioz, enpresa hazten hasiko da..

Lokala gure gurasoetako baten esku egongo da zerbait hobeagoa aurkitu arte, hor lan egingo dugu. Etxean, bi josteko makina ditut, hasieran nahikoak izango direnak. Argi dago, hasieran beharko ditugun gauzak etxean aurki ditzakegun gauzak direla eta zerbait falta ezkerok guk ordainduko dugula aurreztuta dugun diruarekin, materiala ez delako oso garestia eta enkarguak egiten goazen einean irabaziak lortzen joango gara.

Enpresa hazten doan heinean eta diru gehiago edukiko dugunean, etxean edukitzea erraza ez den material mota desberdinak beharko dugu, eta, horregatik, hainbat enpresarekin harremanetan jarriko gara, eta horiek gure enpresarentzat lagun diezagukete, eta hori posible izango da alde batetik bankuaren maileguari esker, ordaintzen jungo gerala pixkanaka enpresa anditzen dan bitartean, eta bestetik, enpresari esker lortutako dugun diruaren esker..

Era berean, uste dugu garrantzitsua dela enpresako edozein makina edo beste edozertarako kalte edo akats guztietarako dirua izatea badaezpada; izan ere, horrek aukera emango digu ahalik eta denbora laburrenean konpontzeko eta lanean jarraitzeko, enpresa inoiz geldiarazi beharrik gabe.

Azkenik, gure enpresak kamioi bat edukiko du, gurea izango dena, jendeak utzitako edozein material hartzeko, bigarren eskukoa izango dena, altzariak zein arropa. Horrek aukera emango digu erabiltzen ez duten edozein gauza gure esku geldituko da eta beste pertsoneri eskaintzea zakarrontzira bota aurretik. Gainera, jendearentzat erosoagoa izango da, dei bakar batekin gurekin non geldituko garen adostea eta adostutako helmugara joatea eskaera jasotzera naiz eta merkeagoa aterako litzaieke lokalean bertan jasotzea.

